

AKTUALITATEAREN GAKOAK

Udan astekaririk ez baina...



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Abuztua gainean da. Oporrak. Eguraldi ona. Urte osoan zehar apaletan udarako aparkatutako irakurketa guztiak hartu eta lasai lasai leitzeko beta izaten dugun sasoia. Bakoitzak bere txokoa: be-saulkian, toalla gainean, tabernako terrazan... Urteak daramatza ARGIAk aldizkarian garai honetarako liburu gomendioak egiten, baina aurten beste irakurketa bat proposatzeko asmoa dugu: *Gakoak*.

Normalean baino ia urte erdi lehenago dator aurtengoan urtekariaren hariari segika sortutako *Aktualitatearen Gakoak* liburuxka. Garai batean, pasatako urteari ikuspegi kronologikotik begiratutako bilduma banatzen zen urtarrilean, azken hamabi hilabeteetan gertatutakoak gorde eta edozein unetan kontsultatzeko liburua. Baina orain zer zentzu du horrek Internetekin?

Salto bat eman zen 2016ko urtarrilean. Geroztik, kontsultarako bilduma bat baino, iragan urtean agenda markatu duten gaien inguruko analisiak eta kronikak biltzen dira, astekaria irekitzen duten Panoramako argazkietatik sei esanguratsuenak aukeratzen dira, 'ARGIAko onenak' atalean *Larrunen*, aldizkarian, blogetan edo sarean zintzilikatu diren hainbat erreportaje, elkarrizketa edo artikulua biltzen dira, eta aurrera begirako aurreikuspenak jasotzen dira 'Joerak' atalean. Irudiek garrantzi handia hartzen dute formatu berrian, eta azala Josevisky marrazkilariaren esku geratzen da, barruko beste zenbait irudi bezala.



Urtarriletik abuzturako saltoa

Kronologiak eta kontsultarako bilduma izateak garrantzia handiagoa zutenean, agian logika gehiago zuen urtarrilean banatzeak. Urtekariaren izenean. Baina formatua aldatuta, gaur egun abiadura bizian doan aktualitateari patxadaz begiratzeko tartea hartzeko ez al da hobe abuztua? Gainera, lau aste horietan ez da astekaririk izaten, eta ARGIAren fanatikoentzat monoa pasatzeko meta-dona funtzioa ere bete dezake.

Total, errealitatea irakurtzea maite duzuenontzat, hemen eskaintza. Hori bai, ez pentsa datorren urtarrilean beste *Gakoak* bat iritsiko zaizuenik postontzira. Dosifikatu indarrak, 2018ko abuztura arte berririk ez da izango eta. ■

Sarean arrantzatutak

ELA sindikatua

@ELAsindikatu

[EHUren udako ikastaroetan]

@AHTzuloan aipatu du

@MikelNoval.ek, @mrafundazioa

eta @argia.ren arteko

kolaborazioaren fruitu.



Jarraitu ARGIA n Via Campesinaren VII. Nazioarteko Biltzarra

Via Campesina nekazarien nazioarteko mugimenduak Euskal Herrian egingo du VII. Nazioarteko Biltzarra. Uztailaren 16tik 24ra, bertako ekitaldi eta eztabaiden kronikak irakurri eta parte hartzaileen iritzia jaso ahal izango dituzu argia.eus-en. Gainera, biltzarraren gako nagusiak azaltzen dituen erreportajea kale-ratuko dugu uztailaren 16ko astekarian. Derioko apaiztegian bilduko diren mundu osoko 500 ordezkariak nekazari txikien gaur egungo arazoez eta erronkez jardungo dute, eta datozen lau urteetan elikadura burujabetzaren bidean aurrera egiteko estrategiak erabakiko dituzte.

